



euskal
etnopoloa
ethnopôle
basque

EGITARAUUA

MIN TE GI A



2019

URRITIK
ABENDURA

AHOZKOTASUNA

HIZKUNTZA
ANIZTASUNAK

SAR HITZA

Frantziako Kultura ondare immaterialaren Batzorde Nazionalak Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta EHESS (Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskola) eskolak aurkeztu partaidetzari « Ethnopôle basque - Euskal Etnopoloa » labela eman dio 2017ko urtarrilaren 12an. Ahozko ondarea eta hizkuntza aniztasunak « Ethnopôle basque - Euskal Etnopoloa »-ren ikerketa eta ekintza gaietarik biga dira. Horren kariatara, **2019-2020an, EKE-k, EHESS eskolarekin partaidetzan (Georg Simmel Zentroa), hirugarren mintegia antolatzen du, ahozkotasuna eta hizkuntza aniztasunen inguruan. Lehen hiruhila, lau hitzorduz osatua da, dohainik eta deneri irekiak.** Hauen artean, biga **IKER** Euskara eta euskal testuen ikerketa zentroarekin ko-antolatuak dira, UPPAren eta CNRSaren laguntzarekin, IKERen 20 urtemugaren eta CNRSaren 80 urtemugaren kariatara. Azkena, aldiz, **CLARENZA** kultur zentroarekin ko-antolatua da.

 **2019KO URRIAREN 24A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

 **BAIONAKO EUSKAL MUSEOAN** (ARGITU gela)

Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatu a(ha)la auzitan jarri?

Alde batetik, Ipar Euskal Herriko testuinguruan, bertso-munduan sozializatzeak hiztun berrien legitimazio prozesuan eragina izan dezake, eta bestaldetik, bertsolariaren irudi kanonikoa legitimazio prozesu horretan muga ere izan daiteke.

Miren ARTETXE SARASOLA, bertsolaria eta euskal soziolinguistikan ikerlaria

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

 **2019KO AZAROAREN 14A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

 **BAIONAKO EUSKAL MUSEOAN** (XOKOA gela)

Nola identifika hizkuntzaren nahasmenduak haur elebidunengan?

Mintzalariak hizkuntza nahasmenduak izateko arriskuan diren haur elebidunak (hizkuntza garapen arazoak edo hizkuntza esposizio mugatua dutelako) modu tipikoan garatzen direnengandik bereizteko erabil daitezkeen bi ariketa eta galdetegi bat aurkeztuko ditu. Bestalde, Frantziar frantsesa ikasten duten ehun bat haur elebidunengan egin azterketa baten emaitzak azalduko ditu.

Philippe PRÉVOST, Irakasle Ikerlari - Tours-eko unibertsitatea - UMR Inserm U 1253 - iBrain - Neuro-Funtzional Psikiatria

Frantsesez, bat-bateko itzulpena euskaraz

Mintzaldi hori IKERekin ko-antolatua da

📅 **2019KO ABENDUAREN 3A, ASTEARTEA**

🕒 **18:00-20:00**

📍 **BAIONAKO EUSKAL MUSEOAN** (XOKOA gela)

Nola hasten dira niniak beren lehen hizkuntz(ar)en ikasten?

Nolaz dira niniak beren lehen hizkuntza(k) hain laster eta hain erraz ikasteko gai? Mintzalariak galdera honi erantzun bat emanen dio, azken bost hamarkadetako haur sortu berrien gaitasun goiztiarraz egin ikerketetako aurkikuntza aberatsak aurkeztuz, eta garapen eleanitzean arreta berezia jarritz.

Judit GERVAIN, Ikerketa zuzendaria Paris Descartes unibertsitatean, CNRS, *Integrative Neuroscience and Cognition Center* - UMR 8002

Frantsesez, bat-bateko itzulpena euskaraz

Mintzaldi hori IKERekin ko-antolatua da

📅 **2019KO ABENDUAREN 19A, OSTEGUNA**

🕒 **19:00-21:00**

📍 **HAZPARNEKO LES TILLEULS HOTEL-JATETXEAN**

Hazparneko zapatagintzaren memoria ahozko testigantzetan

EKEk abiaraziriko *Eleketa* ahozko ondarearen bilketak, besteren artean, Hazparneko zapatagintzaren berri ematen digu. Hortik abiatuz, Aitzpea Leizaolak hainbat galderari erantzuten saiatuko du: zer nolako arrastoak antzeman ditzakegu Hazparneko hirian, eta bereziki, bertako jendearen memorian? Iragana nola txertatzen da orainean? Nola moldarazten du?

Aitzpea LEIZAOLA, antropologoa eta konferentzia irakaslea EHUn

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

Mintzaldi hori CLARENZAekin ko-antolatua da

ARGIBIDEAK

Euskal Kultur Erakundea

Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

www.eke.eus | www.etnopoloa.eus

0 (033) 5 59 93 25 25

info@eke.eus

HELBIDEAK

EUSKAL MUSEOA

36 Kortsarioen Kaia

64 100 BAIONA

LES TILLEULS HOTEL-JATETXEA

1 Verdun Plaza

64 240 HAZPARNE

ANTOLATZAILEAK



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies



PARTAIDEAK

